

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

4269

EBAZPENA, 2013ko urriaren 1ekoa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, memoria historikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko diru-laguntzetarako deialdia egiten duena.

Aginpide publikoek lan egin behar dute memoria historikoa ezagutarazten eta gordetzen, memoria historikoa ondare kolektiboa baita, eskubide eta askatasun demokratikoen alde egindako borrokaren erakusgarri. Helburu horretarako, erakundeek behar diren ekimenak bideratu beharko dituzte, aintzat hartuak eta birgaituak izan daitezzen Gerra Zibilean eta Frankoren diktaduran gertaturiko bidegabekeriak eta laidoak pairatu zituzten pertsonak: balio demokratikoak defenditzeko helburuz borrokatu zirenak eta gatazkan bizia galdu zutenak, askatasuna galdu zutenak eta, azken batean, aldi historiko horretan erbesteratzearen bidegabekeria pairatu zutenak.

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak memoria historikoa berreskuratzeko eta gordetzeko politika publikoa egin nahi du, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren bitartez, eta, horrenbestez, balio eta printzipio demokratikoak berreskuratu, haietan oinarritzen baita gaur egungo gizarteko bizikidetzeta. Helburu nagusia da Gerra Zibilaren biktima guztiak eta haren ondorengo diktaduraren errepresio politiko, sozial eta kulturalari aurre egin zioten pertsona guztiak ohoratzea eta oroitzea betirako. Eta haiekin batera, haien familiak.

2013ko irailaren 24ko 415/2013 Dekretuak (2013ko irailaren 30eko EHAA) Euskal Autonomia Erkidegoan memoria historikoa berreskuratzearen, bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen aldeko jarduerak garatzen dituzten antolakunde eta gizarte-mugimenduek helburu horrekin sustatzen dituzten ekimenetarako laguntzak arautzen ditu, eta, 2.1. artikuluan, ezartzen du diru-laguntza horietako deialdia urtero egingo dela, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariaren ebazpenaren bidez. Horrenbestez, 2013ko laguntzetarako deialdia egiten da.

Orobat, Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen (187/2013) Dekretuaren 19.3 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariak egin behar du bere eskumenen barruan dauden diru-laguntzen deialdia.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Helburua.

Ebazpen honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan, memoria historikoa eta balio demokratikoak berreskuratu, zabaldu eta ezagutzeko proiektuak zein 1936-1977 aldian demokraziaren eta askatasunaren alde egiteko proiektuak, norgehiagoka-araubidearen bitartez, diruz laguntzeko 2013ko deialdia egitea.

2. artikulua.– Denbora-eremua.

2013ko ekitaldian garatzen diren eta abenduaren 31rako amaitzen diren proiektuak diruz lagundu ahalko dira.

3. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen jarduerak.

Memoria historikoa berreskuratzeko proiektuak diruz lagundu ahal izango dira, betiere 1. artikuluari jarraikiz eta honako jarduera hauetako bat edo gehiago biltzen badituzte:

1.– Errepresioarekin, erresistentziarekin eta gizarte demokratikoa eraikitzearekin zerikusia duten pertsonak eta gertakizunak oroitzeko edo omentzeko jardunak.

2.– Ondare demokratikoa –materiala eta ez-materiala– gordetzeko eta berreskuratzeko jardunak: testigantzen datu biografikoak sortzea –batez ere ikus-entzunezko euskarrian– eta 1. artikuluan bil-
duriko gaiei buruzko lekuak, monumentuak, aztarnak, izenak eta beste dokumentu batzuk aurkitzea eta haien errolda egitea hartzen ditu barne.

3.– Diktaduraren errepresioarekin, erbestearekin, erresistentziarekin eta balio demokratikoen errealitate eta egoerarekin loturiko gertaerak eta prozesuak berritzera bideraturiko ikerketa-jardunak.

4.– Zabalkunde- eta prestakuntza-jardunak: biltzarrak, sinposioak, jardunaldiak, mintegiak eta aldi baterako erakusketak antolatzea, ikus-entzunezko produktuak, argitalpenak eta hezkuntza proiektuak hartuko ditu barne.

4. artikulua.– Zenbatekoa.

Deialdi honetara bideraturiko gehieneko zenbatekoa ehun eta bost mila (105.000) eurokoa da guztira, eta 2012ko aurrekontuen kargura joango da (aurrekontu horiek luzatu egin dira 2013ko ekitaldirako).

5. artikulua.– Erakunde onuradunak.

Legez eraturako pertsona juridiko pribatu eta irabazi-asmorik gabekoek eska ditzakete ebazpen honetako diru-laguntzak, haien estatutu sozialen arabera helburu hauek baldin badituzte: balio demokratikoak defendatu, hedatu eta sustatzea edo/eta aldi antifrankistako memoria historikoa berreskuratzea.

6. artikulua.– Izapidetze elektronikoa eta presentziala.

1.– Erakunde interesdunek bitarteko elektronikoa erabili ahal izango dituzte prozedurari buruzko izapideak eskatu, kontsultatu eta egiteko.

2.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak, justifikazioak eta gainontzeko ereduak modu presentzian nahiz elektronikoki nola izapidetu jakiteko xehetasunak, euskadi.net-eko egoitza elektronikoko honetan eskura daitezke: https://euskadi.net/ayuda_subvencion/-/2013/memoria-historica/

3.– Eskaeraren eta dokumentazioa aurkeztearen izapideak bide batetik egiteak (modu presentzian edo elektronikoa) ez du prozeduraren hurrengo izapideak bide beretik egitera behartzen; edozein unetan aldatu daiteke izapideak egiteko modua.

Eskaera egin ondorengo izapideak, bide elektronikoa aukeratuz gero, helbide honetan egingo dira: <http://www.euskadi.net/nirekudeaketak>

7. artikulua.– Eskabideak aurkezteko eta formalizatzeko epea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Eskabidea Lehendakaritzaren Bake eta Bizikidetzako Idazkaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariari zuzenduko zaio (Nafarroa kalea 2; 01007 Vitoria-Gasteiz).

2.– Eskabideak modu presentzian aurkeztu nahi izanez gero, leku hauetara eraman daitezke: Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza (Nafarroa kalea 2, 01007 Vitoria-Gasteiz); Herritarrentzako Zerbitzuaren (Zuzenean) bulegoetara; lurralde-ordezkaritzetara; beste erakunde laguntzaileetara. Herri-administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erki-dearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua ezarritako bideak ere erabil daitezke.

Era berean, eskabideak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu ahal izango dira, euskadi.net-eko egoitza elektronikoko horretara sartuta.

3.– Erakunde eskatzaileek beraiek aukeratutako hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dituzte eskabideak eta horiekin batera doazen ziurtagiriak. Halaber, eskabidearen ondoriozko jardunetan, eta prozedura osoan, erakunde eskatzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1984 Oinarrizko Legeko 5.2.a) eta 6.1 artikuluek ezartzen duten bezala.

8. artikulua.– Eskaerak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Erantzukizunpeko adierazpenak jasotzen dituen eskaera inprimaki normalizatuan beteko da, zeina euskadi.net-en ere eskuragarri egongo baita.

2.– Eskabide horri ondoren zehazten den dokumentazioa erantsi beharko zaio:

a) Erakundearen ordezkariek bide presentziala badarabil eta ez badio baimenik ematen Administrazioari Barne Ministerioan nortasun-datuak egiaztatzeko, bere nortasuna egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko ditu.

b) Proiektuaren memoria xehea, non zehaztuko diren xedea, metodologia, balizko hartzaileak (sexuaren arabera bereziak), lurralde-eremua, egingo diren jardueren egutegia eta genero-ikusegiari nola helduko zaion. Memorian egiaztatuko da eskatzaileak proiektuari dagokion arloan duen esperientzia.

c) Proiektua gauzatzeak izango duen kostuaren aurrekontua, sailetan banakatua, gainerako finantzabideak ere aipatuz, halakorik balego, edo zinpeko deklarazioa jaso proiektua finantzatzeko bestelako baliabiderik ez badago, ez norberarenik ez besterenik.

d) Erakunde eskatzaileak proiektua aurrera eramateko dituen giza-baliabideak eta baliabide materialak. Adierazi egin behar da erakundeak ba al duen berdintasunaren arloan prestakuntza eta/edo esperientzia duen jendea, baita zenbatek jarduten duten boluntario gisa (boluntarioak izango dira diru-sarrerarik jaso gabe proiektuan laguntzen duten pertsonak).

3.– Behin diru-laguntzak emateko ebazpena argitaratzen denean, erakunde onuradunek hirugarrenaren altaren agiria aurkeztu behar dute, erregistratuta ez badaude, edo Ekonomia eta Finantza Sailaren Erregistroan dauden banku-datuak aldatu nahi badituzte.

4.– Era berean, proiektuak balorazio hobea lor dezan, erakunde eskatzaileek egoki irizten dituen dokumentazio osagarria aurkeztu ahal izango da.

5.– Jada gauzatuta dauden proiektuen kasuan, aurrekoek gain, egindako gastuak justifikatzeko behar den dokumentazio guztia ere aurkeztu beharko da.

6.– Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak erakunde eskatzaileari espedientea osatzeko behar dituen agiri eta azalpen guztiak eskatu ahal izango dizkio, eta, era berean, eskatzaileak emandako datuak egiaztatzeko egin beharreko egiaztapen guztiak egin ahal izango ditu.

9. artikulua.– Epaimahai kalifikatzailea.

Hauek izango dira 2013ko irailaren 24ko 415/2013 Dekretuaren 10. artikuluan aurreikusitako epaimahai kalifikatzaileko kideak:

Mónica Hernando Porres andrea, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria, Epaimahai Kalifikatzaileko burua.

M.^a Begoña Garamendi Ibarra andrea, Hezkuntza Berriztatze zuzendaria, bokala.

Jon Redondo Lertxundi jauna, Gazteria eta Kiroletako zuzendaria, bokala.

Lide Amilibia Bergaretxe andrea, Gizarte Gaietako zuzendaria, bokala.

Paul Ortega Etcheverry jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria, bokala.

Ana Alberdi Zubia andrea, Emakundeko idazkari nagusia, bokala.

Laura Sagastizabal Errazu andrea, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzako teknikaria, Epaimahai Kalifikatzaileko idazkaria.

10. artikulua.– Balorazio- eta hautaketa-irizpideak.

1.– Diru-laguntzak emateko edo ukatzeko, lehiaketaren prozedura erabiliko da, eta irizpide haztatu hauek hartuko dira kontuan:

Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa, erakundeak antolatzeko duen gaitasuna eta egitura aintzat hartuta. 20 puntu, gehienez.

Erakundearen kudeaketa-gaitasuna, proiektuari dagokionez. 15 puntu, gehienez.

Proiektuaren aurrekontua argia eta egokia izatea. 15 puntu, gehienez.

Proiektuaren potentzial estrategikoa eta haren egokitasuna edo gizarte-interesa. 20 puntu, gehienez.

Erakunde eskatzailearen ibilbidea. 10 puntu, gehienez.

Genero-ikuspegiaren trataera, garatu beharreko proiektuetan. 10 puntu, gehienez.

Proiektua hainbat erakunderen artean gauzatzea edo beste administrazio publikoren bat ere proiektuan sartuta egotea. 10 puntu, gehienez.

Gehienez ere 100 puntu eman ahalko dira.

2.– Diru-laguntza emateko beharrezkoa izango da, aurreko baremoei jarraikiz, gutxienez 45 puntu lortzea.

3.– Onartutako proiektuen kostuaren % 100eko laguntza eman ahal izango da, proiektu bakoitzaren egoeraren arabera eta betiere gehienez hamabost mila (15.000) euro emanda proiektu bakoitzeko.

11. artikulua.– Ordaintzeko modua.

Diru-laguntzaren % 75 diru-laguntza esleitzeko ebazpena jakinarazi ondoren ordainduko da, eta gainontzeko % 25a, 2014ko otsailaren 28a baino lehen, diru-laguntzaren erabilera Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzan, hurrengo artikuluan ezarri bezala, justifikatu ondoren.

Diru-laguntza eman zeneko ekitalditik kanpo gauzatzen bada bigarren ordainketa hori, organo kudeatzaileak ofizioz egiaztatuko du erakundeak bere betebeharrak bete dituela erakundeari dagozkion Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren aurrean.

12. artikulua.– Diru-laguntzaren justifikazioa.

1.– Justifikazioa aurkezteko epea 2014ko otsailaren 28an amaituko da, eta honako hauek jaso behar dira:

a) Fakturen kopia konpultsatuak eta diruz lagundutako proiektua garatzeko egindako gastuak justifikatzen dituzten ordainagiri originalak. Ordainagiri originalik aurkeztu beharrik ez da izango, baldin eta esleipendunak behar bezala arrazoitzen badu agiri horiek ezin dutela Administrazioaren esku gelditu. Kasu horretan, hitzartu egingo da interesdunak originalak eta kopia aurkeztuko dituela, eta behin konpultsatu ondoren, itzuli egingo zaizkiola.

Bai fakturak (zeintzuek Fakturaziorako betebeharren araudia onartu eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araudia aldatzen duen azaroaren 28ko 1496/2003 Dekretuaren 6. artikuluko betekizun formaletara egokituta egon beharko baitute), bai ordainagiriak, diruz lagundutako proiektua bereizita aurkeztuko dira, behar bezala ordenatuta eta zenbatuta, eta horien izen-zerrenda bat ere aurkeztu behar da, jasotzen duten gastua zertarako den adieraziz.

b) Soldaten ordainagirien kopia konpultsatuak, eredu ofizialean, eta Gizarte Segurantzarako kotizazio ofizialeko zerrendak, lan-kontratudun langileen gastuak justifikatzeko.

c) Aldi baterako kolaborazioen gastuak justifikatzeko ordainagirien kopia konpultsatuak, honako hauek jasoko dituztenak: hartzailearen datuak, haren nortasun agiri nazionala, ordainketaren kontzeptua, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren –PFEZ– atxikipena. Halaber, ogasunaren inprimakiaren originala ere aurkeztu behar da, kolaborazio horietan lortutako diru-sarrerren likidazioari buruzkoa (110-190 inprimakia).

d) Programen, iragarki-kartelen, argazkien eta argitaratutako gainerako material grafiko, idatzi edo soinuzkoen aleak.

e) Egindako proiektuen memoria xehea, besteak beste pertsona onuradunak (sexuaren arabera bereziak) aipatuz eta genero-ikuspegiaren trataera azalduz.

2.– Tramitazioa bitarteko telematikoen bidez egiten bada, goian adierazitako dokumentazio hori eskaneatuta eta sinadura elektronikoarekin aurkeztu behar da.

3.– Bai tramitazio presentzialean, bai telematikoan, dokumentu originalak eskatu ahal izango ditu Administrazioak, beharrezko jotzen duenean.

Justifikazioak izapidetzeko zehaztapienak (bai bide presentziala erabilita, bai bide elektronikoa erabilita), euskadi.net-en daude eskuragarri.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen honek ez du amaitzen administrazio-bidea. Beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkez dezakete, Bake eta Bizikidetzarako idazkariaren aurrean, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

2013ko urriaren 9a, asteazkena

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamu-
nean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 1a.

Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria,
MÓNICA HERNANDO PORRES.

2013ko urriaren 9a, asteazkena

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Inprimatu

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

Eskabidea

OROIMEN HISTORIKOA BERRESKURATZEKO PROIEKTUAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZEN ESKABIDEA

(*) nahitaezko eremuak

Eskatzailea *

Titularra Ordezkarria

Datu pertsonalak**Titularra**

Erakundearen izena *

Telefonoa

Identifikazio-dokumentua *

Zenbakia *

Zein lurralde/probintzian daude erakunde eskatzailearen datu fiskalak *

Ordezkarria

Izena / Erakundearen izena *

Telefonoa

Lehen abizena

Bigarren abizena

Sexua Gizona

Identifikazio-dokumentua *

Zenbakia *

 Emakumea

Helbide elektronikoa:

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala * **Posta bidezkoa**

Helbidea *

Zk. _____ Sol. _____ Letra _____

PK *

Udalerrria *

Probintzia *

Herrialdea * ESPAINIA

 Elektronikoa**Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza ***

Euskara Gaztelania

Abisuak jasotzeko datuak

Helbide elektronikoa edo SMS bidezko doako abisuen sistema erabili dezakezu. Sistemak abisatu egingo dizu jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen zaizun bakoitzean.

Helbide elektronikoa edo telefono-zenbaki bat baino gehiago emanaz gero, bereiz itzazu puntu eta koma bidez [;].

Helbide elektronikoa: _____

SMSa: _____

Erantzukizunpeko adierazpenak

Bateragarritasun-adierazpenak

Erakunde eskatzailea(k):

- Ez da laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin administrazio publikoen edo erakunde pribatuen eskutik.
- Administrazio publiko edo erakunde pribatuen bati laguntza eskatu dio eta eman egin dio (atal honetako datuak "Beste finantziazio-iturri batzuk" eranskinean zehaztu beharko dituzu).
- Administrazio publiko edo erakunde pribatuen bati laguntza eskatu dio, baina erantzunaren zain dago (atal honetako datuak "Beste finantziazio-iturri batzuk" eranskinean zehaztu beharko dituzu).

Inskripzio-adierazpena

Erakunde eskatzailea legez eraturik dago, eta dagokion erregistroan inskribaturik. Inskripzioaren datuak:

- Euskadiko _____ erregistroa.
- Data _____

Bestelako adierazpenak

Aitortzen dut:

- Erakunde eskatzailea(k):
 - Ez dauka diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor penal edo administratiborik.
 - Ez dago diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko gaitasunik gabe uzten duten lege-debekuen eraginpean, beren-beregi sexu-diskriminazioagatik¹ lege-debekuen eraginpean.
 - Egunean ditu indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, arauz zehaztu bezala².
 - Betetzen ditu indarreko legediak laguntza hauek jasotzeko ezarritako baldintzak.
- Benetakoak dira eskabide honetan eta erantsitako dokumentuetan jasotako datuak.

¹ Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak seigarren azken xedapenean dioenaren arabera.

² 1/1997 Dekretuaren arabera, deialdia kudeatzen duen organoak berariazko baimenik gabe egiaztatuta ahal izango du erakunde eskatzaileak egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

2013ko urriaren 9a, asteazkena

Aurretik entregatutako dokumentuak

Dokumentu hauek kontsultatzeko baimena ematen dut:

Dokumentuaren izena	Noiz entregatu zen	Zein erakundetan entregatu zen

+ Dokumentu berria gehitu

_____ (Tokia) _____ (e)n _____ (Data) _____ (e)an

(Ordez kariaren sinadura)

Eskabidea osatzeko argibideak

Eskatzailea

Erakundeak beti ordezkari baten bidez aritzen dira, hortaz:

- *Eskatzailea* atalean, aukeratu ezazu *Ordezkaria*.
- *Datu pertsonalak* atalean, bete ezazu *Titularra* atala erakundearen datuekin eta *Ordezkaria* atala zure datuekin.
- Sina ezazu eskabidea.

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

Jakinarazpen eta komunikazioak jasotzeko, aukera hauek dituzu:

Posta bidezkoa: *Posta bidezkoa* atalean jarri duzun helbidera igorriko dira.

Elektronikoa: [Nire kudeaketak](#) guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Han sartzeko, [onartutako ziurtagiri elektronikoa](#) bat izan behar duzu.

Oharra: 10 eguneko epea duzu jakinarazpena sartzeko; bestela, jakinarazpena errefusatzat joko da, izapidea egintzat emango da eta prozedurak aurrera egingo du.

2013ko urriaren 9a, asteazkena

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Inprimatu

LEHENDAKARITZA

Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA

Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

II. ERANSKINA

ERAKUNDE ESKATZAILEAREN BESTELAKO DATUAK

Izartxoak (*) daramen datuak derrigorrezkoak dira

Erakundea inskribatuta dagoen erregistroko / erroldako datuak

Erregistroaren / Erroldaren izena: * _____

Erregistro-data: * _____ Erregistro-zenbakia: * _____

Estatutuen arabera, hauxe da erakundearen helburua (hitzez hitz kopiatu): *

Zuzendaritza-batzordearen osaera

Eskabidea egindako egunean erregistroan edo erroldan erregistratua dagoenaren arabera, honako hauek dira erakundean indarrean dagoen Taldeko Aginte Organoko/Zuzendaritza Batzordeko kideak (hitzez hitz kopiatu izenak eta karguak. Erakundearen estatutuek taldeko aginte-organorik aurreikusten ez badute, lehendakariaren, idazkariaren eta diruzainaren izen eta karguak adierazi):

Izena	Kargua
	Lehendakaria

+ Lerro Berria Gehitu

_____ (e)n, _____ (e)an

Sinadura:

2013ko urriaren 9a, asteazkena

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Inprimatu

LEHENDAKARITZA

Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA

Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

III. ERANSKINA - AURREKONTUA

Izartxo (*) daramaten datuak derrigorrezkoak dira

Programaren datuak

Proiektuaren izena: *

Eskatutako zenbatekoa:

Gastuak		Sarrerak	
Langile-gastuak		Erakunde eskatzailearen ekarpena	
Funtzionamendu-gastuak		Erakunde publikoen ekarpena	
Bestelako gastuak		Erakunde pribatuen ekarpena	
		Bestelako sarrerak	
Gastuak, guztira		Sarrerak, guztira	

+ Lerro Berria Gehitu

Defizita: _____ euro

Bestelako finantzaketa-iturriak

Baduzu bestelako finantzaketa-biderik?	<input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez	
Zein?	Emandako zenbatekoa	Eskatutako zenbatekoa
Guztira		

+ Lerro Berria Gehitu

Eskatutako diru-laguntzak eta ebazpenaren zain

Bestelako laguntzarik eskatu al duzu?	<input type="radio"/> Bai <input type="radio"/> Ez	
Zein erakunderi?	Eskatutako zenbatekoa	
Guztira		

+ Lerro Berria Gehitu

+ Proiektua Gehitu

Sinadura:

2013ko urriaren 9a, asteazkena

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Inprimatu

LEHENDAKARITZA

Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA

Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

IV. ERANSKINA - PROIEKTUAREN BESTELAKO DATUAK

Izartxo (*) daramaten datuak derrigorrezkoak dira

Programaren datuak

Programaren/Proiektuaren izena: *

Programaren hartzaile izan daitezkeenak: *

Programaren gutxi gora-beherako hartzaile-kopurua (sexuen arabera banatuta): * Gizonak: _____ Emakumeak: _____

Lurralde-esparrua: * _____

Programaren helburua: *

Metodologia: *

Egin beharreko jardueren egutegia

Jarduera	Data	Modua

+ Lerro Berria Gehitu

Giza baliabideak**Parte-hartzailea****Prestakuntza:****Esperientzia:****Parte-hartzearen maila:****Berdintasun-arloko prestakuntza:****Boluntarioa/Elkartea:** _____**Bere erakundearen izena** (*zutabea erakunde eskatzaileakoa ez den elkarteren batekoa izatekotan bete behar da*):**+ Parte-hartzailea Gehitu****Baliabide materialak****Erakunde eskatzaileak proiektua gauzatzeko dauzkan baliabide materialak: *****+ Proiektua Gehitu**

_____(e)n, _____(e)an

Sinadura:

2013ko urriaren 9a, asteazkena

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

Inprimatu

V. ERANSKINA - JUSTIFIKAZIO-MEMORIA

Programaren datuak

Programaren izena: _____

Programa honen onurak jasotzen dituen kolektiboa: _____

Programa honen onurak jasotzen dituen emakume-kopuru balioetsia: _____

Programa honen onurak jasotzen dituen gizon-kopuru balioetsia: _____

Egindako jardueren laburpena:

Proiektuaren betearazpenean parte hartu duten pertsonak

Parte-hartzailea

Prestakuntza:

Esperientzia:

Parte-hartzearen maila:

Berdintasun-arloko prestakuntza:

Boluntarioa/Elkartea: _____

Bere erakundearen izena (zutabea erakunde eskatzaileakoa ez den elkarteren batekoa izatekotan bete behar da):

+ Parte-hartzailea Gehitu

Betearazpenean erabilitako baliabide materialak:

Genero-ikuspegia sartzeko modua:

2013ko urriaren 9a, asteazkena

Fakturak, nominak, proiektuari egotzitako aldi bateko lankidetzak

Egozpen-mota	Zenbatekoa
Guztira	

+ Lerro Berria Gehitu

Dokumentu-mota	Data	Zenbatekoa	Zenbakia	Zertarakoa

+ Lerro Berria Gehitu**Proiektuaren betearazpenean egindako materiala**

Programak Kartel iragarleak Argazkiak Bestelakoak _____

Diruz lagundutako proiektu bakoitzari dagozkion fakturak eta ordainagiriak aurkeztu behar dira, behar bezala ordenatuta eta zenbakituta, eta **zerrenda batean adierazita dokumentu bakoitzean adierazitako gastua zertarako egin den**. Fakturek bat etorri beharko dute Fakturatzeko betebeharrak arautzen dituen araudia onartzen duen eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzen duen azaroaren 28ko 1496/2003 Errege Dekretuko 6. artikulua ezartzen dituen eskakizun formalekin.

+ Proiektua Gehitu

_____ (e)n, _____ (e)an

Sinadura: